

"Maitea"

Toni Morrison

euskaratzailea: Antton Garikano

Elkar / Alberdania, 2005

Hasieratik esan dezagun: Toni Morrison (Ohio, AEB, 1931) euskaraz irakurri ahal izatea erabateko luxua da euskal irakurleontzat. Lehenago ere, Alberdaniak eta Elkarrek argitaratzen duten Literatura Unibertsala izeneko itzulpen sorta honek gozatu ederrak eman dizkigu, baina ez dut uste alferrikakoa denik berriro ere Pernandoren egiak errepikatzea. Behin baino gehiagotan berba egin da honen moduko itzulpenek euskararen normalizazioari ekartzen dioten onuraz edo gure idazleen esku jartzen dituzten baliabide eta erreminta literarioen balioaz. Hala da, ez dut nik ukatuko. Baina, literaturzale eta irakurle soil garenon ikuspegitik, honen moduko liburuak esku artean eduki ahal izatea espero gabeko opari ederraren parekoa dela begitantzen zait, eta hori, nire ustez, ez da behar bezala nabarmendu. Azken finean, horixe baita, bestelako kontuak gorabehera, literaturaren zeregin nagusia: irakurleari pentsaraztea, gozaraztea, sentiaraztea.

Beltza eta emakumea da Toni Morrison. Hara hor Pernandoren beste egia, begi bistakoa dena baina ezinbestez aipatu behar duguna. Izan ere, AEBetako beltzen komunitatearen historiara, oroimen kolektibora dzanga egiten du Morrisonek, perla bilatzaileen antzera. Ur azaletara bueltatzen denean, bere herriaren mendetako sufrikarioaren berri ekartzen digu, esklabotzaren eta umilazioaren fruitu mingotsa. Eta eme ahotsez kontatzen digu oinazez beteriko istorio eder bezain krudela.

Anton Garikano itzultzaileak hitzaurrean dioskun legez, hainbat irakurketa izan dezake eleberri honek. Garikanok horietako batzuk proposatzen dizkigu: mamuen istorioa, kontakizun errealista, maitasun-istorioa, eleberri politikoa, feminista... Oroz gain, ordea, nik esango nuke askatasun egarriaren inguruko eleberria dela *Maitea*. "Libertatea nola baita gauzetako hobena, gatibutan egotea hala pena gaitzena", zioen Etxepare gure lehenengo poetak. Baina horreok ere mailak ditu, eta gatibu egote horretan esklabotza begitantzen zaigu askatasunaren eta giza duintasunaren ukaziorik erabatekoena. Hala bere bizitza osoan "arnasaldi libre bakar bat hartu gabea" da, eta, hala ere, badaki ez dagoela "askatasuna bezalakorik munduan"; horregatik, aparteko lana egingo du amaren askatasuna erosi ahal izateko. Sethek ere badaki askatasuna dela "gauzetako hobena", eta seme-alabak esklabo ez ikustearren, horrearen eta eromenaren zurrumbiloan amiltzeko prest dugu. "Dana emon biar yako matte dan askatasunari", Lauaxetaren arabera.

Sethe, Denver eta haur hilaren mamua 124an bizi direneko garaian esklabotza legez indargabeturik dago, baina eleberria *flashback*-ez josita dago, eta etengabe itzuliko gara gizakien duintasuna hutsaren pareko zeneko arora. Horrela, apurka-apurka, Setheren bizitza burdina goriaz markatu duen sekretu izugarriaren berri jakingo dugu, eta mosaikoaren pieza guztiak elkarri loturik ageriko zaizkigu. Eta hori guztia, gehiegikerian eta efektismoan erori gabe kontatzen digu Morrisonek, gordin eta zehatz, osaba Tomen melengakeriatik urrun. Baby Suggsek, hirurogei urtez esklabo eta hamar urtez libre izan ondoren, ederto ikasi du: "Munduan zorte txarra ez, zuri-jendea dago".

Paul-D eta gainerako berrogeita bost esklabo elkarri lotuta daude hirurehun metroko burdinazko kateaz. Ihes egitea erabakitzen dutenean, argi dute denek egin behar dutela hanka. "Bat galduz gero, denak galduko ziren. Lotzen zituen kateak denak edo inor ez zuen salbatuko". Alegoria polita, liburu eder eta gordin honetan (izan ere, gordintasunik gabeko edertasunik ba al dago?) esperantza apur bat jartzeko.

Berria, 2005-04-26